	contemplados en la Ayudas de Emergencia Social. La cuantía concreta de cada caso se fijará en base al porcentaje que le hubiera correspondido por las AES, con un máximo del 70 % del coste real del bien o servicio para el que se solicita la ayuda salvo en los siguientes casos: – Cuando la situación económica de la familia haga imposible el pago del otro 30 % y así se exponga el informe/propuesta. – Cuando tal como se prevé en la base 5ª f en el supuesto 3, no se considerara la situación económica de la familia.
Documentación	Tres presupuestos si la actividad a realizar estuviera disponible por más de un proveedor, que en la medida de lo posible sean de Andoain.
Justificación	La persona deberá entregar en el Departamento de Servicios Sociales los justificantes de haber dedicado la ayuda a los gastos para la que fue concedida.

Concepto	6.- Gastos para el fomento de la inserción social y/o laboral de personas adultas
Criterios de concesión	– No poder acceder la UC a las AES por este concepto. – No disponer la UC de ingresos superiores a los que dan derecho a AES. – No disponer de un patrimonio (utilizable con inmediatez) suficiente para hacer frente a este gasto.
Gastos subvencionables	– Son gastos susceptibles de ser cubiertos con estas ayudas: – Gastos para el pago de matrícula y/o mensualidades de recursos formativos para adultos siempre que no exista entidad alguna que proporcione la misma formación de forma gratuita. – Gastos necesarios para el acceso a un puesto de trabajo (costes de gestión de documentación y similares.) – Gastos para la participación en actividades que fomenten la participación social de personas en exclusión.
Empadronamiento y residencia efectiva en Andoain	3 meses.
Plan de Atención Personalizado	El expediente debe contener un Plan de Atención Personalizado.
Cuantía	Véase la orden anual de la Consejería de Empleo y Políticas sociales, que establecen las cuantías máximas para cada uno de los gastos específicos contemplados en la Ayudas de Emergencia Social.
Documentación	Tres presupuestos si la actividad a realizar estuviera disponible por más de un proveedor, que en la medida de lo posible sean de Andoain.
Justificación	La persona deberá entregar en el Departamento de Servicios Sociales los justificantes de haber dedicado la ayuda a los gastos para la que fue concedida.
Nota	Este concepto puede ser complementado con el concepto 5 si es necesario actuar para que la persona disponga de tiempo “libre” suficiente o con el concepto 4 si es necesario pagar gastos de transporte.



Andoingo Udala

Kodea:
2017ABO10008

Udal Ordenantza

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza

Ordenanza Municipal

Ordenanza para la concesión de ayudas municipales de Garantía de Ingresos y para la inclusión social.

I. ERANSKINA

HELBURUAK (KONTZEPTUAK ETA AZPI-KONTZEPTUAK)

Concepto	1.- Oinarrizko beharrak asetzeko gastuak
Azpi-kontzeptua	1.a) <i>Gizarte bazterketa larrian dagoen bizikidetza-unitatea</i>
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetza-unitateak ez izatea Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko eskubidea ematen duten sarreraren % 50 baino gehiago. - Bizikidetza-unitateak ezin eskuratzea ez Diru Sarrerak Bermatzeko Errentarik, ez Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzarik, eta ez izatea oinarrizko beharrak asetzeko beste diru iturririk. - Gizarte bazterketa larrian egotea, bizilekurik ez duelako edo hura galtzeko arrisku nabarmena duelako, edo, bestela, bizilekua izanda, nahiko bitartekorik ez izatea oinarrizko beharrak asetzeko (elikadura eta arropa).
Diruz lagundu daitezken gastuak	- Eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren gastuak: elikagaiak, jantzia, higiene produktuak e.a.
Andoainen erroldatua egotea eta bizilekua bertan izatea	6 hilabete, eskaera egin aurrekoak zehazki.
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	Hilean gehienez emango den kopurua zehazteko, kontuan hartuko da inolako diru sarrerarik ez duen kide kopuru bereko bizikidetza-unitate batek diru sarrerak bermatzeko urtean jasoko lukeen errenta. Emaitza horren % 50 emango zaio, gehienez, baina bizikidetza-unitatean adingabeak edo mendetasun-egoeran dauden pertsonak badaude, berriz, % 75 emango zaio, gehienez (gehieneko kopuru horiei bizikidetza-unitateak dituen sarrerak kenduko zaizkie).
Dokumentuak	Bizikidetza-unitatearen egoera ekonomikoa egiaztatzeko dokumentuak. Proposamen-txostenean sarrera eta gastuen balantzea jaso beharko da.
Justifikazioa	Laguntza jasotzen duen pertsonaren bizikidetza-unitatea egoera jakin batean dagoelako ematen dira diru-laguntza horiek, eta, horrenbestez, udalaren laguntza emateko egoera edo baldintza hori egiazkoa dela egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztea, ez da beste justifikaziorik beharko.
Azpi-kontzeptua	1.b) Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta edo Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza jasotzen ez duten pertsonak, prestazio horiek jasotzeko aukerarik ematen ez dien bizileku-plaza bat eskuratu dutelako.
Emateko irizpideak	Inolako pentsio nahiz prestaziorik jasotzeko eskubiderik ez izatea, gizarte-baliabide edo baliabide sozio-sanitario batean bizi direlako eta bizileku horretan mantenu-gastuak beteta dituztelako; izan ere, kasu horietan galdu egiten da prestazio hori jasotzeko eskubidea.
Diruz lagundu daitezken gastuak	- Eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren gastuak: elikagaiak, jantzia, higiene produktuak e.a.
Andoainen erroldatua egotea eta bizilekua bertan izatea	6 hilabete.
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Aukerakoa.



Andoingo Udala

Kodea:
2017ABO10008

Udal Ordenantza

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza

Ordenanza Municipal

Ordenanza para la concesión de ayudas municipales de Garantía de Ingresos y para la inclusión social.

Zenbatekoa	Gehienez, Inolako diru sarrera propiorik ez duen pertsona bakar batek osatutako bizikidetzazunitateari dagokion Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren % 25a.
Dokumentuak	Pertsona baliabide horretan bizi ohi dela egiaztatze erakunde edo entitate kudeatzaileak emandako egiaztagiria.
Justifikazioa	Laguntza jasotzen duen pertsonaren bizikidetzaz-unitatea egoera jakin batean dagoelako ematen dira diru-laguntza horiek, eta, horrenbestez, udalaren laguntza emateko egoera edo baldintza hori egiazkoa dela egiaztatze beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztea, ez da beste justifikaziorik beharko.

Kontzeptua	2.- Etxebizitza erabiltzeari lotutako gastuak
Azpi-kontzeptua	2.a) Etxebizitza errentan hartzea – Alokairuko hasierako sarrera
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzaz-unitateak ez izatea ez Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik ez Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarririk eskuratzeko aukerarik, ezarritako baldintzak ez betetzeagatik . (ikusi oharra) - Bizikidetzaz-unitatearen diru sarrerak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubidea ematen dutenak baino handiagoak. - Bizikidetzaz-unitateak ez izatea gastu hori ordaintzeko nahikoa den ondare erabilgarririk. - Hiru egoera hauetakoren batean egotea: <ul style="list-style-type: none"> o Adingabeak dituzten familiak, bizilekurik ez dutenak edo bizilekurik gabe geratzeko arrisku nabarmena dutenak. o Baztertzeko egoeran dauden pertsonak, bizilekurik ez dutenak edo bizilekurik gabe geratzeko arrisku nabarmena dutenak. o Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak. - Hileko alokairua ezin da izan 700 € baino handiagoa. - Eskatzaileak alokairu kontratua eduki beharko du. Alokairuko etxebizitza batean sartzeko dirulaguntza emateko, kontratu berriak gutxienez urtebeteko iraupena izan behar du.
Diruz lagundu daitezken gatuak	Alokairuko etxebizitzarako sarrera gastuak (fidantza, alokairu gastuak, higiezin agentziako gastuak e.a.)
Andoainen erroldatua egotea eta bizilekua bertan izatea	6 hilabete
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	Ikus Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren urteko agindua, horrek ezartzen baititu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan gastu espezifikoko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diruzenbatekoak.
Alokairua ordaintzeko dokumentuak	<ul style="list-style-type: none"> - Alokairu kontratua. - Errentaren zenbatekoa egiaztatze dokumentua.
Alokairuko hasierako sarrera ordaintzeko dokumentuak	<p>Kontratatuan zehaztutako etxebizitza identifikatzeko beharrezkoak diren agiriak, alokairuaren kostua eta etxebizitzan sartzeak eragiten dituen kostuak (normalean, agentziaren gastuak eta fidantza). Besteak beste, hauek izan daitezke dokumentu horiek.</p> <p>Aurre-kontratua Higiezinen agentziako aurrekontua</p>



Andoingo Udala

Kodea:
2017ABO10008

Udal Ordenantza

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza

Ordenanza Municipal

Ordenanza para la concesión de ayudas municipales de Garantía de Ingresos y para la inclusión social.

Justifikazioa	Eskatzaileak emandako kontzeptuei dagokien zenbatekoa ordaindu izana egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztu beharko du Gizarte Zerbitzuetako Sailean: alokairua, fidantzaren dirua eta eta/edo agentziaren gastuak.
Azpi-kontzeptua	2.b) Logela alokatzea eta berralokatzea, eta etxebizitza maizter baten baino gehiagoren artean alokatzea. Logelako hasierako sarrera ordaintzea (alokatzea, berralokatzea edo maizter baten baino gehiagoren artean alokatzea).
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzta-unitateak ez izatea ez Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik ez Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarririk eskuratzeko aukerarik (ikusi oharra). - Bizikidetzta-unitatearen diru sarrerak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubidea ematen dutenak baino handiagoak. - Eskatzaileak logela alokatzeko, berralokatzeko (kasu honetan, jabearen baimenarekin) edo etxebizitza maizter baten baino gehiagoren artean alokatzeko kontratu bat eduki beharko du eta helbide horretan erroldatuta egon. Alokairuko etxebizitza baten hasierako sarrerari dagokion dirulaguntza emateko kontratu berriak gutxienez urtebeteko iraupena izan behar du. - Bizikidetzta-unitateak ezin badu ez Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik ez Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarririk jaso etxebizitza horretan Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituzten bi bizikidetzta-unitate bizi direlako, logela alokatzeko laguntza eman ahal izango zaio, betiere etxebizitza bisitatu eta egiaztatu bada baldintza duinak dituela eta ez dagoela jende-pilaketarik. Proposamen-txostenean jaso beharko da hala dela.
Diruz lagundu daitezkeen gastuak	Berralokatze eta etxebizitza maizter bat baino gehiagoren artean alokatzeko gastuak (fidantza, alokairu gastuak, higiezin agentziako gastuak e.a.).
Andoain erroldautta egotea eta bizilekua bertan izatea	6 hilabete
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	Ikus Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren urteko agindua, horrek ezartzen baititu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diruzenbatekoak.
Dokumentuak	<ul style="list-style-type: none"> - Logela alokatzeko kontratua (Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako erabiltzen den eredu bera erabil daiteke hemen ere) edo etxebizitza maizter baten baino gehiagoren artean alokatzeko. - Berralokatze kontratua izanez gero, etxebizitzaren jabeak berariaz emandako baimena. - Eguneratutako errentaren zenbatekoa egiaztatzeko dokumentua.
Logelaren alokairuko hasierako sarreraren kostuetarako dokumentuak	Kontratatuan zehaztutako etxebizitza identifikatzeko beharrezkoak diren agiriak, alokairuaren kostua eta logelaren hasierako sarrerak eragiten dituen kostuak (normalean, agentziaren gastuak eta fidantza). Besteak beste, hauek izan daitezke dokumentu horiek: <ul style="list-style-type: none"> - Aurre-kontratua. - Higiezin agentziako aurrekontua
Justifikazioa	Eskatzaileak emandako kontzeptuei dagokien zenbatekoa ordaindu izana egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztu beharko du Gizarte Zerbitzuetako Sailean: logelaren alokairua, fidantzaren dirua eta/edo agentziaren gastuak.



Andoingo Udala

Kodea:
2017ABO10008

Udal Ordenantza

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza

Ordenanza Municipal

Ordenanza para la concesión de ayudas municipales de Garantía de Ingresos y para la inclusión social.

Oharra	1. Salbuespen gisa, GLL nahiz EPO jasotzen dituzten pertsoneri logela alokatzeko gastuak ordaintzeko laguntza bat ematea baloratuko da, jasotzen dituzten beste laguntza horien osagarri, baldin eta familiak, bere egoera ekonomikoagatik, ezin badu alokairuaren gainontzeko zatia ordaindu eta etxebizitza galtzeko arriskuan badago. Kasu horretan, proposamentxostenean bizikidetzaren sarrera eta gastuen balantzea jaso beharko da, egoera ekonomiko hori egiaztatzearen, eta Lan Planean arazoari irtenbidea emateko neurriak aurreikusi beharko dira.
Azpi-kontzeptua	2.c) Hipoteka-maileguen amortizazioa eta interesak.
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzaren unitateak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik eskuratzeko aukerarik (ikusi oharra). - Bizikidetzaren unitatearen diru sarrerak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubidea ematen dutenak baino handiagoak. - Hiru egoera hauetakoren batean egotea: - Adingabeak dituzten familiak, bizilekurik ez dutenak edo bizilekurik gabe geratzeko arrisku nabarmena dutenak. - Baztertzeko egoeran dauden pertsonak, bizilekurik ez dutenak edo bizilekurik gabe geratzeko arrisku nabarmena dutenak. - Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak.
Diruz lagundu daitezken gastuak	Lukureriazkoak ez diren etxebizitza hipoteka-maileguen amortizazioa eta interesen gastuak.
Andoainen erroldatuta egotea eta bizilekua bertan izatea	6 hilabete
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	Ikusi Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren urteko agindua, horrek ezartzen baititu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diruzenbatekoak
Dokumentuak	<ul style="list-style-type: none"> - Hipoteka-maileguaren eskriturak. - Eguneratutako kuotaren zenbatekoa egiaztatzeko dokumentua.
Justifikazioa	Maileguaren kuotak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak Gizarte Zerbitzuetako departamentuan aurkeztu beharko dira.
Oharra	1. Salbuespen gisa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituzten pertsoneri hipotekamaileguen amortizazio eta interes gastuak ordaintzeko laguntza ematea baloratuko da, jasotzen dituzten beste laguntza horien osagarri, baldin eta familiak, bere egoera ekonomikoagatik, ezin badu gastu hori ordaindu eta etxebizitza galtzeko arriskuan badago. Kasu horretan, proposamen-txostenean bizikidetzaren sarrera eta gastuen balantzea jaso beharko da, egoera ekonomiko hori egiaztatzearen, eta Lan Planean arazoari irtenbidea emateko neurriak aurreikusi beharko dira.
Azpi-kontzeptua	2.d) Energia eta mantentzea.
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzaren unitateak ezin izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik jaso kontzeptu honengatik. - Bizikidetzaren unitatearen hileko sarrerak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubidea ematen dutenak baino handiagoak. - Ez izatea gastu hori ordaintzeko ondare nahikorik, berehala erabil dezakeenik.



Andoingo Udala

Kodea:
2017ABO10008

Udal Ordenantza

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza

Ordenanza Municipal

Ordenanza para la concesión de ayudas municipales de Garantía de Ingresos y para la inclusión social.

	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetz-unitateari elektrizitatea edo gasa moztu izana, ordaindu ez duelako, edo mozteko arriskua egotea denbora gutxian ordaintzen ez badu. - Jubilatuta eta pentsiodunei dagokionez baremo ekonomiko ezberdina kontutan hartuko da. (ikusi oharra)
Diruz lagundu daitezken gastuak	Energia (argia eta gasa) eta mantentze gastuak (etxebizitzarekin zerikusia daukatenak)
Andoainen erroldatuta egotea eta bizilekua bertan izatea	6 hilabete
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	Ikusi Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren urteko agindua, horrek ezartzen baititu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diruzenbatekoak.
Dokumentuak	Egoera egiaztatze dokumentazioa (konpainia hornitzailearen oharra edo gutuna,...).
Justifikazioa	Diruz lagundutako kontzeptuei dagokien zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen duten agiriak Gizarte Zerbitzuetako departamentuan aurkeztu beharko dira.
Oharra	Enpresak eskatzen badu sarearekiko lotura egin aurretik zorrak ordaintzeko, gogoan izan kontzeptu hau aurretiko zorpetzea dela eta eska daitekeela (gehieneko kopurua berbera izanda). Jubilatu eta pentsiodunen kasuan kontutan hartuko den baremo ekonomiko 1.080 euro/hileko pagak hainbanatu gabe izango da.
Azpi-kontzeptua	2.e) <i>Etxebizitza egokitzeko eta/edo konpontzeko gastuak.</i>
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetz-unitateak ezin izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik jaso kontzeptu honengatik. - Bizikidetz-unitatearen hileko sarrerak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubidea ematen dutenak baino handiagoak. - Ez izatea gastu hori ordaintzeko ondare nahikorik, berehala erabil dezakeenik. - Bizikidetz-unitatea bizi den etxebizitzak egokitzapen edo konponketak behar izatea, betiere hobekuntza horiek egin ezean, unitateko kideen edo beste pertsona batzuen segurtasuna nahiz osasuna benetako arriskuan jar badaiteke. Honelako egokitzapen eta konponketek ari gara: - Alokairuko etxebizitzaren kasuan, gastu horiek ordaintzea ez izatea jabearen erantzukizuna.
Diruz lagundu daitezken gastuak	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazio elektrikoa aldatzea. - Zerraila aldaketak - Osasungarritasun eza daukaten etxebizitzaren garbiketa eta egokitzapena. - Leihoak aldatzea, oso hondatuta daudenez ura eta/edo airea pasatzen uzten badute, eta ezin badira konpondu. - Gas galdara aldatzeko beharrezko obrak, Legeak agindutako aldaketa denean. - Irisgarritasuna hobetzea, hala nola, ateak zabalago egitea, bainera aldatzea... (ikusi oharra). - Pertsianak edo fatxadako beste osagai pribatiboak konpontzea (konponketa lan horiek ez badagozkio bizilagunen erkidegoari), baldin eta bertatik pasatzen direnen gainean erortzeko arriskua badago.



Andoingo Udala

Kodea:
2017ABO10008

Udal Ordenantza

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza

Ordenanza Municipal

Ordenanza para la concesión de ayudas municipales de Garantía de Ingresos y para la inclusión social.

Andoainen erroldatuta egotea eta bizilekua bertan izatea	6 hilabete.
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	Ikusi Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren urteko agindua, horrek ezartzen baititu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diruzenbatekoak.
Dokumentuak	<ul style="list-style-type: none"> - Egoera egiaztatzeko dokumentazioa. - Hiru aurrekontu, hiru enpresa desberdinek emanak, ahal den neurrian Andoingoak.
Justifikazioa	Diruz lagundutako kontzeptuei dagokien zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen duten agiriak Gizarte Zerbitzuetako departamentuan beharko dira.
Oharra	1. Irisgarritasuna hobetzeko eskaera baten espedientea izapidetzean, kasuaren arduradunak aztertuko du ea beste laguntzarik ematen den helburu horretarako eta ea eskatzaileak halakorik eskuratzetik duen (batez ere, GFAk emandako Laguntza Teknikoak). Hau proposamentxostenean jaso beharko da.
Azpi-kontzeptua	2.f) Etxebizitzaren oinarrizko ekipamendurako gastuak.
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzta-entitateak ezin izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik jaso kontzeptu honengatik. - Bizikidetzta-entitatearen hileko sarrerak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubidea ematen dutenak baino handiagoak. - Ez izatea gastu hori ordaintzeko ondare nahikorik, berehala erabil dezakeenik. - Etxebizitzak, egoera txarrean dagoelako edo bertan bizitzen hasteko momentuan hutsik zegoelako, ez izatea oinarrizko altzaririk. Beheko "zenbatekoa" izeneko atalean ageri diren altzariak joko dira oinarrizko altzaritzat. - Alokairuko etxebizitzaren kasuan, gastu horiek ordaintzea ez izatea jabearen erantzukizuna.
Diruz lagundu daitezken gastuak	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko txetresna elektriko eta altzari gastuak.
Andoainen erroldatuta egotea eta bizilekua bertan izatea	6 hilabete.
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	Ikusi Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren urteko agindua, horrek ezartzen baititu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diruzenbatekoak.
Dokumentuak	Bi aurrekontu, bi enpresa desberdinek emanak, ahal den neurrian Andoingoak.
Justifikazioa	Diruz lagundutako kontzeptuei dagokien zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen duten agiriak dagokion Gizarte Zerbitzuetako departamentuan aurkeztu beharko dira.
Oharra	Altzariak, beren egoera txarra dela eta, ezin erabili direnean soilik emango dira gastu horietarako laguntzak. Hortaz, bai altzarien kasuan bai etxetresna



Andoingo Udala

Kodea:
2017ABO10008

Udal Ordenantza

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza

Ordenanza Municipal

Ordenanza para la concesión de ayudas municipales de Garantía de Ingresos y para la inclusión social.

	elektrikoen kasuan, nahitaezkoa izango da etxebizitza bisitatzea, beharra egiaztatzeko. Hala ere, etxetresna elektrikoen kasuan, ez da beharrezkoa izango etxebizitza bisitatzea baldin eta teknikari batek sinatutako idatzi batean adierazten bada beharra dagoela.
--	---

Kontzeptua	3.- Osasun arloko beharrak asetzeko gastuak
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzta-unitateak ezin izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik jaso kontzeptu honengatik. - Bizikidetzta-unitatearen diru sarrerak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubidea ematen dutenak baino handiagoak. - Ez izatea gastu hori ordaintzeko ondare nahikorik, berehala erabil dezakeenik. - Osasun sistema publikoak aintzat hartzen ez duen egoera izatea (koordainketa kasuetan erabiltzaileak ordaindu beharreko zatia, osasun zerbitzuak erabiltzeko eskubidea ez duten pertsonak, e.a.). - Printzipioz, ez dira kontuan hartuko Osakidetzak aintzat hartzen ez dituen tratamendu edo botikak (medikuntza alternatiboak, tratamendu estetikoak, e.a.).
Diruz lagundu daitezken gastuak	<ul style="list-style-type: none"> - Aho-hortzetako, odontologia eta oftalmologiarekin zerikusia daukaten oinarrizko gastuak. - Desgaitasuna duten adin txikikoei zuzenduriko tratamendu terapeutikoak. Kontzeptu honek baremazio berezia izango du desgaitasuna duten adin txikikoei arreta positiboko neurriak ezartzeko helburuarekin. (ikus! oharra) - Osakidetzaren preskripzio medikoa duten botiken gastuak.
Andoainen erroldatuta egotea eta bizilekua bertan izatea	<p>3 hilabete.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Salbuespen bezala, ez zaie errolda eskatuko mediku preskripzio urgentea edukita igarotze egoeran dauden pertsonei.
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ikusi Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren urteko agindua, horrek ezartzen baititu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diruzenbatekoak. - Kasu bakoitzean eman beharreko kopurua kalkulatzeko, kontuan hartuko da eskatzaileari eskaera egin duen hilean Gizarte Larrialdietarako Laguntzen zer ehuneko legokiokeen.
Dokumentuak	<ul style="list-style-type: none"> - Aurrekontua. - Beharra justifikatzeko txosten medikoa. - Igarotze egoeran daudenei eskatuko zaizkie identifikazio agiria eta preskripzio mediko premiazkoa. - Kasu hauetan urteko ordainketa bakarra egingo da, 150€ kopurua gainditu gabe.
Justifikazioa	Diruz lagundutako kontzeptuei dagokien faktura Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan aurkeztu beharko da.
Oharra	<p>Desgaitasuna duten adin txikikoei zuzendurik dauden tratamendu terapeutikoen kasuan honako baremo ekonomiko hauek hartuko dira kontutan:</p> <p>1.- Atal honetan jasotako onartua izateko irizpideak betetzen dituenak GGL</p>



Andoingo Udala

Kodea:
2017ABO10008

Udal Ordenantza

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza

Ordenanza Municipal

Ordenanza para la concesión de ayudas municipales de Garantía de Ingresos y para la inclusión social.

	<p>eta ordenantza honetan jasotzen diren laguntzen artean tratamenduaren %100 jaso ahal izango du.</p> <p>2.- Diru-sarrerak 38.000€ gordinak edo gutxiagokoak dituzten elkarbizitza unitateak tratamenduaren %40a jaso ahal izango dute. Ez dira diru-sarrera bezala kontutan hartuko Dependentsiaren legeak jasotzen dituen FIZPE diru laguntzak.</p> <p>3.- Diru-sarrerak 38.000€ eta 45.000€ gordinen artean dituzten EU tratamenduaren %20 eskatu ahal izango dute. Ez dira diru-sarrera bezala kontutan hartuko Dependentsiaren legeak jasotzen dituen FIZPE diru laguntzak.</p> <p>4.- Diru-sarrerak 45.000€ gordinak gaituzten dituzten EU ez dira diruz lagungarriak izango.</p>
--	--

Kontzeptua	4.- Garraio beharrak asetzeko gastuak
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetza-unitateak ezin izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik jaso kontzeptu honengatik. - Bizikidetza-unitatearen diru sarrerak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubidea ematen dutenak baino handiagoak. - Ez izatea gastu hori ordaintzeko ondare nahikorik, berehala erabil dezakeenik.
Diruz lagundu daitezken gastuak	Arreta Plangintza Pertsonalizatuan ezarritako neurriak betetzeko eharrezkoak diren joan-etorriak ordaintzeko behar izatea laguntza.
Andoainen erroldatuta egotea eta bizilekua bertan izatea	Hilabete bat. - Salbuespen bezala, ez zaie errolda eskatuko mediku preskripzio urgtea edukita igarotze egoeran dauden pertsonen.
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	Ordainketa aldizka egin behar bada (hainbat hilabete irauten duten ikastaroak, kasu), hilean 125 € emango zaizkio, gehienez. Beti, garraio publikoaren kostea kontuan izango da, eta joan behar den lekura garraio publikoa ez badago, km-gatik ezarrita dagoen udal tarifaren arabera ordainduko zen. Gehienez, gastu errealaren % 70 emango zaio, eskatzaileak inongo sarrerarik ez duenean izan ezik; kasu horretan, kostuen % 100 ordaindu ahal izango zaio.
Dokumentuak	Egin beharreko garraio gastuak egiaztatzen dituzten dokumentuak.
Justifikazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza onartutako gastuetarako erabili dela egiaztatzen duten agiriak dagokion Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan aurkeztu beharko dira. - Ordainketa gehiago egiteko, aurreko gastuak justifikatuta egin behar dituzte. - Ibiltari den pertsonen identitate agiria eskatuko zaie eta bidaia egiteko larrialdi egoeran dauden agiria.

Kontzeptua	5.- Adingabeentzako zerbitzuak kontratatzeko gastuak
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetza-unitateak ezin izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik jaso kontzeptu honengatik. - Bizikidetza-unitatearen diru sarrerak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubidea ematen dutenak baino handiagoak.



Andoingo Udala

Kodea:
2017ABO10008

Udal Ordenantza

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza

Ordenanza Municipal

Ordenanza para la concesión de ayudas municipales de Garantía de Ingresos y para la inclusión social.

	<ul style="list-style-type: none"> - Ez izatea gastu hori ordaintzeko ondare nahikorik, berehala erabil dezakeenik. - Neurriak helburu hauetako bat izatea: <ul style="list-style-type: none"> o Adingabeak zaintzen duen pertsonak denbora libre izatea Lan Planean ezarritako jarduerak egiteko, aukera gehiago izan dezan gizarteratzeko edo lan munduan sartzeko. o Adingabeak babestea edo ematen zaion zerbitzuaren kalitatea hobetzea. - Laguntza hauek gastu hauetarako eman daitezke, besteak beste: - Bizikidetza-unitateko adingabeak eskolaratzeak dakartzan gastuak, bai eta eskolaz kanpoko ekintzetan, haur eskoletan, udalekuetan, aisialdiko taldeetan, e.a. parte hartzeak ekarritakoak ere - Laguntza bitarteko pribatuek emandako zerbitzuak ordaintzeko eskatzen bada eta zerbitzu horiek bitarteko publikoek ere ematen badituzte, adierazi beharko da zergatik ezin diren bitarteko horiek erabili, edo zergatik ez den komeni. Bitarteko publikoak baliatuz gero, laguntza erabiltzaileak ordaindu behar duen kostuaren zatia ordaintzeko erabili ahal izango da.
Diruz lagundu daitezken gastuak	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza hauek gastu hauetarako eman daitezke: - Bizikidetza-unitateko adingabeak eskolaratzeak dakartzan gastuak, bai eta eskolaz kanpoko ekintzetan, haur eskoletan, udalekuetan, aisialdiko taldeetan, e.a. parte hartzeak ekarritakoak ere
Andoainen erroldatuta egotea eta bizilekua bertan izatea	3 hilabete.
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	<p>Ikusi Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren urteko agindua, horrek ezartzen baititu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan gastu espezifikoko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diruzenbatekoak.</p> <p>Kasu bakoitzean eman beharreko kopurua kalkulatzeko, kontuan hartuko da eskatzaileari Gizarte Larrialdietarako Laguntzen zer ehuneko legokiokeen, eta, gehienez ere, diruz lagundutako ondasun edo zerbitzuaren kostu errealaaren % 70ekoa izango da laguntza, honako kasu hauetan izan ezik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Familiak, bere egoera ekonomikoagatik, ezin badu gainerako % 30 ordaindu eta hala jasotzen bada proposamen-txostenean. - 5. oinarriko f puntuko 3. atalean aurreikusitakoaren arabera, ez da kontuan edukiko familiaren egoera ekonomikoa.
Dokumentuak	Hiru aurrekontu, kontratatu beharreko lan edo zerbitzu hornitzaile batek baino gehiagok egiten badu, ahal den neurrian Andoingoak.
Justifikazioa	Laguntza onartutako gastuetarako erabili dela egiaztatzen duten agiriak dagokion Gizarte Zerbitzuetako departamenduan aurkeztu beharko dira.

Kontzeptua	6.- Helduak gizarteratzea eta /edo lan munduan sartzea bultzatzeko laguntzak.
Emateko irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetza-unitateak ezin izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzarik jaso kontzeptu honengatik. - Bizikidetza-unitatearen diru sarrerak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubidea ematen dutenak baino handiagoak.



Andoingo Udala

Kodea:
2017ABO10008

Udal Ordenantza

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza

Ordenanza Municipal

Ordenanza para la concesión de ayudas municipales de Garantía de Ingresos y para la inclusión social.

	<ul style="list-style-type: none"> - Ez izatea gastu hori ordaintzeko ondare nahikorik, berehala erabil dezakeenik.
Diruz lagundu daitezken gastuak	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza hauek gastu hauetarako eman daitezke: - Helduentzako prestakuntza baliabideen matrikula eta/edo hileko kuotak ordaintzeko gastuak, baldin eta ez badago prestakuntza hori doan ematen duen inolako erakunderik. - Lanpostu batean sartzeko beharrezko gastuak: dokumentazioa kudeatzeko kostuak eta antzekoak. - Baztertuta dauden pertsonen parte hartzea bultzatzeko jardueretan esku hartzeko gastuak.
Andoainen erroldatuta egotea eta bizilekua bertan izatea	3 hilabete.
Arreta Plangintza Pertsonalizatua	Espedienteak Arreta Plangintza Pertsonalizatua jaso behar du.
Zenbatekoa	Ikusi Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren urteko agindua, horrek ezartzen baititu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diruzenbatekoak.
Dokumentuak	Hiru aurrekontu, kontratatu beharrek lan edo zerbitzua hornitzaile batek baino gehiagok ematen badu, ahal den neurrian Andoingoak.
Justifikazioa	Laguntza onartutako gastuetarako erabili dela egiaztatzen duten agiriak dagokion Gizarte Zerbitzuetako departamenduan aurkeztu beharko dira.
Oharra	Kontzeptu hau bateragarri dela 5. kontzeptuarekin, onuradunak nahiko denbora librea izatea lortu nahi bada, nahiz 4. kontzeptuarekin, garraio gastuak ordaindu behar baditu.